TOLOSAKO UDALA

## SANJOANAK 2018. KARTEL LEHIAKETA

**San Joan jaiak 2018** iragartzeko kartel lehiaketarako deialdia egiten du Tolosako Udalak.

**01.- *Gaia eta kartelaren testua:*** **Sanjoanak 2018 / TOLOSA,** izango da kartel guztietan azalduko den testua. Era berean, Tolosako logotipoa konposizioan integratuta eramango du (goian azaltzen dena).

**02.- *Partaidetza***: nahi duen orok parte har dezake. Obra horiek, ideia nahiz edukiari dagokionez, originalak izan beharko dute derrigor, eta jendaurrean aurkezteko modukoak. Plagio edo kopia susmorik sortuko balitz, epaile taldeak erabakiko luke proposamena onartu ala baztertzea eta erabakia apelaezina izango litzateke.

**03.- *Tamaina***: original guztien neurri bertikala 50 x 70 zentimetrokoa izango da.

**04.- *Kolorea eta teknika***: aukerakoa. Ordenagailuz eginez gero, inprimatutako bertsioaz gain, kartelaren euskarri informatikoa ere aurkeztu beharko da. Kasu honetan goi-mailako erresoluzioko artxiboa izango da eta, gutxienez, 300 ppp izango ditu.

**05.- *Aurkezteko eguna:*** kartelak aurkezteko azken eguna maiatzaren 4a izango da, 19:30ean.

**06.- *Aurkezteko lekua:*** Antonio Maria Labaien kultur etxean, goizeko 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara, astelehenetik ostiralera.

**07.- *Identifikazioa:*** Kartela behar bezala estalita aurkeztuko da eta kanpoaldean egilearen lema jarriko da. Lan bakoitzarekin batera kartazal itxi bat entregatuko da. Kartazalaren barruan egilearen izen-deiturak, posta elektronikoa eta telefonoa adieraziko dira eta kanpoaldean kartelaren lema.

**08.- *Informazioa***: 943670388 / kultura@tolosa.eus / Kultur Etxea – Trianguloa 1 – Tolosa.

**09.- *Saria:*** 500 euroko sari bakarra izango da. Sari honi dagokion erretentzioa egingo zaio.

**10.-*Epaimahaia:*** Kultura, Festak eta Gazteria Departamentuak izendatuko du, emakumeen eta gizonen ordezkaritza parekatua izango dela bermatuta.

**11.**-Generoen irudikapenean erabilitako irudiek oreka bilatuko dute, rol eta estereotipo tradizionalak azpimarratu gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-aukeraren arloan diferentzien tratamendu gutxiesgarria ekidinez.

**12.- *Erakusketa:*** lehiaketara aurkeztutako kartel guztien artean epaile taldeak aukeratutako sail bat jendaurrean erakutsiko da, Antonio Maria Labaien kultur etxean.

**13.**- Aukeratutako lan hauen artetik aterako da irabazlea, herritarren botoek erabakita. Botoak kultur etxean bertan edo www.tolosa.eus web orrialdean emango dira honetarako azalduko den arautegi bati jarraituz.

**14.- *Lanak noiz jaso:*** saririk irabazi ez duten originalak aurkeztu ziren lekuan bertan jaso ahal izango dira 2018ko ekainaren 4tik 15era. Epe horretan jaso ez direnekin udalak ez du inolako ardurarik izango.

**15.-** Saritutako kartela eta beronen era guztietako erreprodukzio eskubideak Tolosako Udalaren jabetzapean geratuko dira. Hauek egoki deritzon publizitate lanetan ere erabili ahal izango ditu.

Kasu horietan autoreek ez dute inolako murtzilorik egiteko eskubiderik, ez eta jadanik eskuratutako sariaren zenbatekoaz gain beste diru kopururik jasotzeko ere. Gainera,saritutako lanak eduki ditzakeen jabetza intelektualaren gaineko eskubide guztiak Tolosako Udalari emandakotzat joko dira, inolako kontrapestaziorik gabe

**16.-** Udalak ez du bere gain hartzen lehiaketara aurkeztutako lanei gerta dakiekeen edonolako kalteren erantzukizuna.

**17.-** Lehiaketan parte hartzeak oinarriok erabat onartzea dakar berekin.

## BASES PARA EL CONCURSO DEL CARTEL DE SAN JUAN 2018

El ayuntamiento de Tolosa convoca el concurso de carteles para las **fiestas de San Juan del año 2018** según las siguientes bases:

**01.-** ***Tema y texto del cartel:*** el texto que aparecerá en los carteles será **Sanjoanak 2018** / **TOLOSA**. Asimismo, incluirá en la composición este logotipo de Tolosa (incluído en el encabezamiento).

**02.-** ***Participación:*** podrá participar quien lo desee. Las obras tendrán que ser originales tanto en lo que se refiere a su contenido como a las formas y serán apropiadas para ser exhibidas en público. En el caso de que alguna de las propuestas fuera sospechosa de plagio o copia, será el jurado quien decida su aceptación o retirada y su decisión será inapelable.

**03.-** ***Tamaño***: serán obras verticales de 50 x 70 centímetros.

**04.-** ***Color y técnica:*** libre elección. Si son trabajos elaborados con ordenador, además de la versión impresa, se tendrán que presentar también en soporte digital. En este caso, serán archivos de alta resolución y tendrán un mínimo de 300 ppp.

**05.-** ***Fecha de presentación:*** el plazo para entregar los originales finaliza el 4 de mayo del 2018, a las 19:30 horas

**06.-** ***Lugar de presentación:*** se entregarán en la casa de cultura Antonio Maria Labayen de Tolosa, en horario de 10:00 a 13:00 y de 17:00 a 20:00h., de lunes a viernes.

**07.-** ***Identificación***: El cartel se entregará debidamente cubierto y se indicará en la parte externa el lema del mismo. Acompañará al trabajo un sobre cerrado donde se incluirán los datos de quien concurse: nombre y apellidos, dirección electrónica y teléfono.

**08.-** ***Información:*** 943670388 / kultura@tolosa.eus / Kultur Etxea – Trianguloa 1 – Tolosa.

**09.-*****Premio:*** se establece un único premio de 500 euros, al que se le aplicará la retención correspondiente.

**10.-** ***Jurado:*** será nombrado por el Departamento de Cultura, Fiestas y Juventud, garantizando que su composición cumpla con los criterios de igualdad de sexos.

**11.-** Las imágenes utilizadas tenderán al equilibrio en la representación de los géneros, sin reforzar los roles y estereotipos tradicionales, evitando un tratamiento peyorativo de las diferencias de sexo, raza, edad, cultura u opción sexual.

**12.-** ***Exposición***: se hará una exposición en la casa de cultura Antonio Maria Labaien de Tolosa con una selección realizada por el jurado entre todas las obras presentadas.

**13.-** La obra ganadora saldrá de entre los trabajos seleccionados, con los votos de la gente. Los votos se emitirán en la propia casa de cultura o bien a través de la página www.tolosa.eus, siguiendo la normativa correspondiente.

**14.-** ***Plazo de retirada de obras***. Los trabajos no premiados podrán ser retirados en el mismo lugar donde fueron entregados, entre el 4 y el 15 de junio del 2018. El ayuntamiento de Tolosa no se hace responsable de los trabajos no retirados dentro del plazo establecido.

**15.-** Serán propiedad del ayuntamiento de Tolosa el trabajo ganador, así como todos los derechos de reproducción del mismo. Podrá ser usado, asimismo, en los trabajos publicitarios que se consideren oportunos. En este caso, la persona autora no podrá reclamar ningún derecho ni compensación suplementaria al premio recibido. Además, se considerarán donados al ayuntamiento de Tolosa todos los derechos de propiedad intelectual de la obra, sin contraprestación alguna.

**16.-** El ayuntamiento de Tolosa no es responsable de los daños que se puedan ocasionar a las obras presentadas a concurso.

**17.-** La participación en el concurso supone la aceptación de estas bases.